

Herritartasunaren kontzeptua aztertzen kultura ugaritasunetik

Virginia Guichot Reina irakaslea
Sevillako Unibertsitatea

Gaur egun mendebaldeko gizarterik gehienei eragiten ari den fenomenoetako bat immigrazio handia da; etorkinak, gainera, herrialde hartzaileko tradizio, ohitura eta bizitzeko era desberdinak dituzten herrialdeetatik datoz. Horrekin batera, gaur egungo munduaren globalizazioari aurre egiteko modu gisa, nazionalismoek gora egin dute, hau da, kultur nortasun propioaren aldarrikapenak gora egin du. Ondorioz, gizarte horietan *kultura ugaritasunaz* hitz egiten da, kultura desberdinetako indibiduo-taldeen gizarte eremuko bizikidetzaz. Gurearen moduko testuinguru batean, hau da, erreferentzia esparrutzat Europar Batasuna duen eta Batasuneko herrialde guztiak onerako batuko dituen Konstituzioa sortzeko asmo argi eta agerikoa duen testuinguruan, premiazkoa dirudi erabiliko dugun herritartasun kontzeptua berriz pentsatu behar dela. XXI. mende hasiera hau bereizten duten ezaugarri berriak kontuan hartuko dituen herritartasuna. Lan honetan, ezaugarri horien artetik, kultura ugaritasuna nabarmendu nahi dugu.

Kultura ugaritasunak zalantzan jartzen du kultur pluralismoarekin zerikusirik ez duten herritarren ikusmolde tradizionala. Mendebaldeko gaur egungo gizarteetan indartsu agertu denetik, adierazpide guztiak hartuko dituen “herritartasuna” terminoaren berrikusketa nagusitu da. Errebisionismo horrek ez gaitu aztoratu behar, are gutxiago hainbatek postmoderno legeaz izendatu duten garai honetan, izan ere, garai honetan gure ustez oso ona den ezaugarri bat nabarmendu behar bada, gure egiak zalantzan jartzeko beharraren kontzientzia hartu dela da, pentsatutakoa berriz pentsatu behar dela, alegia. Dena dela, ez da Hirugarren Milurteko honetara arte iritsi behar izan “herritarra izateari” buruzko definizio bakar eta atemporalik ez dagoela ulertzeko –nahikoa da Atenasen eta Erromaren artean kontzeptualizazio horri buruz zeuden desberdintasunei erreparatzea–. Izan ere, terminoari ematen zaion edukian ez dute soilik zirkunstantzia historiko zehatzek eragiten; antropologia batean edo etika batean oinarritutako pentsamendu tradizioek ere eragiten dute. Hala, beraz, une historiko berberean, pentsamendu eredu liberallean, komunitaristan edo errepublikanoan, eta korrante horietako bakoitzean aukeratzen dugun pentsatzailearen arabera, ñabardura garrantzitsuak kontuan hartuta, ikusmolde ezberdinak izango ditugu, ezin baitugu erabateko homogeneotasunik espero korrante bakoitzeko kideen artean. Gaingiroki, eredu liberalak herritartasunari buruzko diskurtsoa eskubideen esparruan oinarritzen du; komunitaristak pertinentzia eta errepublikanoak parte hartzean. Baina, horrek ez du esan nahi hiru tradizioetako batek ere erabat ahazten duenik gainerakoek lehenesten dituzten elementuen garrantzia.

Aurreko mendean nagusitu zen eta guk jarauntsi dugun eredu eredu liberala da, eta, beraz, ezinbestekoa dirudi eredu horren ezaugarrietako batzuk gogoraraztea, gero argiago ulertzeko zergatik sartu den krisian. Herritartasuna kontzeptuaren ikuskera modernoa, mendebaldeko gizartearen gaur egunera arte oro

har erabili izan duguna –eta orain berrikusi nahi duguna–, teoria liberal klasikoko balizko indibidualistetan oinarritzen da, eta kapitalismoaren eta iraultza burgesen garapenaren baitan sortu zen. Teoria horren arabera, *subjektuak, nagusiki, jatorrizko eskubide batzuen jabe diren indibiduotzat hartzen dira, eremu politikoan eta juridikoan berdinak dira, beste eremu batzuetan dauden desberdintasunak gorabehera*. Herritartasuna ulertzeko era honen balio nagusia kanpoko edozein trabaren aurreko *askatasun indibiduala* da, bai kontzientziari dagokionez, bai ideiei dagokienez, bai jarduera ekonomikoari dagokionez. Isaiah Berlinek dioenez, askatasun hori “askatasun negatiboa” izenda genezake, izan ere, gizaki bat libretzat hartzen du beste gizaki batek bere jardueran parte hartzen ez duen neurrian¹. Askatasunaren eremua da pertsona batek beste batzuen eragozpenik gabe jardun dezakeen hura.

Ikusmolde liberal klasikoaren arabera, norbanakoak, berez, unitate politikoak dira, eta gizarte politikoa norbanakoen arteko gizarte kontratu hipotetiko baten ondorioa da, eta, beraz, eskubideak eskubide indibidualak dira. Gizakia ez da berez politikoa; politika gizaki horrek gizartean duen lekua bermatzen edo mehatxatzen duen tresna gisa ulertzen da. Horrexegatik ezartzen da herritarraren estatusa gizarte zibiletik, beraren helburuen eta balioen arabera. Askatasuna, jabetza... estatua baino lehenagoko eta haren gaineko eskubide natural bezala ikusten dira, eta Estatuak onartu eta errespetatu egiten ditu. Herritarra, oroz gain, eskubide subjektu bat da. Historian ezarri ziren lehenengoak eskubide zibilak izan ziren (pentsamendu eta adierazpen askatasuna, jabetza askatasuna...); gero, eskubide politikoak (botere politikoan agintari politiko izendatutako talde bateko kide legez edo kideen aukeratzaille legez parte hartzeko eskubidea); gero, eskubide sozialak. Azkeneko horiek agertu ziren baldintza material jakin batzuk, zerbitzu batzuk eta prestazioak (hezkuntza, osasuna, segurtasun ekonomikoa) faltaz gero herritartasuna oso-osorik ezin erabil zitekeen kontzientzia hartu zenean. Hau da, herritartasuna kontzeptuak subjektu autonomoak hartzen dituen neurrian eta pertsona legez duten duintasun berdinegatik eskubideen jabe diren neurrian, zentzugabea dirudi hori guztiori posible egiten duten baldintza materialak eta kulturalak bertatik kentzea.

Ikusmolde liberalaren beste ezaugarri bat da *eremu publikoaren* (juridikoa eta politikoa) *eta pribatuaren* (ekonomia, kultura) *arteko bereizketa argia*: esparru publikoa arautzen duten arauen ordena bakar eta unibertsala dago, zeina bateragarria baita esparru pribatuko ikusmuldeen ugaritasunarekin eta bizitza moduekin. Zein rol dagokio estatuari etikaren ikuspuntutik? Ikusmolde liberal klasikoaren arabera, neutral egotea baino ez dagokio indibiduen doktrinen eta helburuen aurrean, kultur eta erlijio desberdintasunen aurrean “itsu” boluntario. Estatuak eskubide eta neurri multzo bat baino ez du eman behar, herritar guztiek beren aukera kulturalak, erlijiosoak zein politikoak izateko eta adierazteko aukera

¹ Horren aurrean, Berlinek askatasun positiboa jartzen du, indibiduo bakoitzak bere buruaren jabe izateko duen gaitasun legez ulertuta, bere erabakiak hartzeko gaitasuna, bere aukeren erantzule izateko gaitasuna eta beraren ideien eta asmoen arabera azaltzeko gaitasuna duen neurrian. BERLIN, I. (2004): *Sobre la libertad*, Madril, Alianza Editorial, 217. orrialdea eta hurrengoak.

berberak izan ditzaten, estatua bera ongiaren benetako ikusmoldearekin konprometitu gabe, izan ere, pertsona guztiak errespetu berberarekin tratatzea da asmoa. Liberalismo klasikoarentzat, herritarren kultur ugaritasuna kontuan hartuta, jarrera bat benetakotzat hartzea ekitatearekiko konpromisoa urratzea izango litzateke.

Premisa horietatik abiatuta, estatu liberalek, historian zehar, hainbat estrategia erabili izan dituzte gutxiengo kulturalen auziari aurre egiteko. Teorian behintzat, lehenik eta behin, *tolerantzia* politika bat garatu dute, zeinaren arabera gutxiengoek, haienezako onarpen publikorik egon ez arren, nahi duten bezala joka zezaketen, beti ere, gehiengoaren kultura oztopatzen ez bazuten; eta, gero, ez *baztertzeko* politika garatu zuten, non estatuak aktiboki parte hartzen duen gizarteko kide guztiek, indibiduo lege, zerbitzu publikoetarako sarbidea izan zezaten. Hala eta guztiz ere, *ez da onartzen taldeentzako eskubide edo laguntza espezifikorik sartzeari, hori estatuaren neutraltasuna haustea izango litzateke eta.*

Baina, ikus dezagun ikusmolde liberal klasikoaren premisa horiek zenbaterainoko indarraldia izan dezaketen mendealdeko gaur egungo gizarteetako kultura ugaritasuna onartuz gero. Kultura ugaritasunaren ikusmoldeak dioten bezala, gizarte politikoari dagokionez, kultur komunitate egonkor eta bideragarri ugariz osatutako ikuskera bat hartzen badugu abiapuntutzat, eta erkidego horiek guztiak maila berekotzat hartu behar baditugu, gizarteetako bizikidetzak baketsurako irtenbidea ezin daiteke estatuaren neutraltasuna izan. Neutraltasun hori sekula ere ez da benetakoa, beti sustatzen baititu identitate batzuk eta beste batzuk baztertzeko: gobernuek hizkuntzei, barruko mugei, jaiegun publikoei eta estatuko sinboloei buruz hartzen dituzten erabakiek, ezinbestean, talde etniko eta nazional batzuen beharrezan eta identitateak onartzen, babesten eta laguntzen dituzte². Herritartasunaren kontzeptu klasikoa aldarrikatzen duen homogeneousitasuna baztertzaila da talde nagusikoak ez diren taldeentzat. Helburua, ondorioz, kultur identitate guztiak estatuaren barruan ondo egokitzea izango da. Kasu batzuetan ez da nahikoa elkartzeko askatasuna, kultu, adierazpen, zirkulazio askeko eta politikoki antolatze askatasunak bermatzea talde desberdintasuna babesteko. Talde bateko kide izatearen ondoriozko desberdintasun modu batzuk egokitzeko, ezinbestekoa da taldeetako kideek, talde bezala, eskubide espezifiko batzuk izatea, hau da, Iris Youngek "herritartasun desberdindua" dioten hori³.

Herritartasun desberdindua aipatzea ez da kontraesankorra, ez da inkoherentea justizia sozialaren, berdintasunaren, askatasunaren balio unibertsalekiko. Hain zuzen ere, bermatu egin behar ditu eta balio horiek gutxiengoen eskubideak mugatzeko izan behar lirateke. Herritartasun desberdindua sartzean, gehiengoaren bidegabekeria nabarmenak ekiditea eta

² KYMLICKA, W. (1996): *Ciudadanía multicultural*, Barcelona, Paidós. 6. kap.: "La justicia y los derechos de las minorías."

³ YOUNG, I. (1989): "Polity and Group Difference: A Critique of the Ideal of Universal Citizenship", *Ethics*, 99/2, 250-274. or.

etnia-kultura gatazka ez gaiztotzea da asmoa. Kymlickak dioen legez, “estatu kulturantz batean, guztia bere baitan hartzen duen justiziaren teoriak eskubide guztiak hartuko ditu, nola unibertsalak (norbanakoei dagozkienak, zein taldetakoak diren kontuan hartu gabe), hala taldeari dagozkion eskubide desberdinak jakin batzuk, hau da, gutxiengoaren kulturentzako ‘estatus berezi’ bat”⁴. Egileak dioena kontuan hartuta, talde pertinentziaren arabera hiru neurri mota aipa genitzake diferentzia nazionalak eta etnikoak egokitzeko. Talde pertinentziaren arabera, beraz, hiru neurri mota horiek hiru eskubide mota ezartzen dituzte: autogobernurako eskubideak, eskubide polietnikoak eta ordezkaritzarako eskubide bereziak.

Autogobernurako eskubideei dagokienez, nazio askoko estatuak osatzen dituzten nazioek⁵ aldarrikatzen dituzte, beraien kulturaren garapen oso eta askea bermatzeko. Eskuarki, autogobernurako egiten diren aldarrikapenak eskumen transferentziak izaten dira, batez ere gutxiengo nazional batek kontrolatzen duen batasun politiko bati emateko eskumenak. Batasun politiko hori gutxiengo horren aberria edo lurralde historikoa izan ohi da. Emakida horiek ez dira aldi baterako neurritzat hartzen. Aitzitik, eskubide horiek, sarri askotan, “berezko” eskubidetzat⁶ hartzen dira, eta, beraz, hortxe jarraitzen du gutxiengo nazionalak Konstituzioan jasoak izateko duten asmoetako batek.

Eskubide polietnikoei dagokienez, etorkinek azkeneko hamarkadetan herrialde hartzaileko kulturaitsu-itsuan hartzeko izan duten errefusa kontuan hartuta uler daiteke eskubideon aldarrikapena, hau da, herrialde hartzaileko arauak, ohiturak eta abar hartzeari egin dioten errefusa, euren jaraunspen etnikoko alderdi guztiak baztertu beharko lituzketeelako ondorioz. Hasiera batean, etorkin talde horiek beraien berezitasunak askatasun osoz adierazteko eskubidea aldarrikatu zuten, kultura hartzaileak baztertzeko beldurrik gabe; gero, eskakizun haiek ugaritu egin ziren, balizko aurreiritziak eragozteko, hala nola, hezkuntza curriculumeko aldaketak gutxiengo bakoitzaren ekarpena eta historia azaltzeko, beraien praktika erlijiosoak direla-eta kalte egiten dieten legeetatik eta xedapenetatik salbuesteko ere eskatu dute. Esate baterako, Britainia Handiko juduek eta musulmanek domeketan ixteko aginduaren salbuespena eskatu dute, baita animaliak hiltzeko legeria ere, eta Kanadako gizonezko *sikhek* motozaleek kaskoa eramateko duten obligaziotik salbuetsi ditzatela eskatu dute, baita poliziaren jantzi ofizialak eramatek ere, turbanteak eramaten jarraitu ahal izateko. Pertentzia taldearen (“eskubide polietnikoak”) araberrako neurri berezion helburua

⁴ KYMLICKA, W. (1996): *Ciudadanía multicultural*, op. cit., 19. or.

⁵ “Nazioa” elkarte historiko bat da, instituzionalki gehiago edo gutxiago osatuta dagoena, eta lurralde edo jatorrizko lur bat hartzen duena, non hizkuntza eta kultura desberdinak bat darabilten. “Nazioaren” ikuspegi soziologiko hori estu-estu lotuta dago “herriaren” edo “kulturaren” ideiarekin; izatez, kontzeptu bata zein bestea, sarritan, trukagarriak izaten dira. Ibidem, 26. or.

⁶ Izan ere, talde nazionalen autodeterminaziorako eskubidea onartuta dago nazioarteko eskubidean (muga batzuekin). Nazio Batuen Gutunaren arabera, “herri guztiek dute autodeterminaziorako eskubidea”. Hala eta guztiz ere, Nazio Batuek ez dute “herriak” zer diren definitu eta, oro har, autodeterminazio printzipioa itsasoz haraindiko koloniei baino ez zaie aplikatu, eta ez barneko gutxiengoaren nazioei, ezta herriok itsasoz haraindiko kolonizazio eta konkista mota berbera jasan badute ere.

talde etnikoei eta gutxiengo erlijiosoei beren berezitasuna eta harrotasun kulturala adierazten laguntzea da, hau da, hori ez dadin oztopo izan gizarte nagusiko erakunde ekonomikoetan eta politikoetan arrakasta izateko. Autogobernurako eskubideak bezala, eskubide polietnikoak ere ez dira aldi baterakotzat jotzen, izan ere, babesten dituzten desberdintasun kulturalak ez dira ezabatu nahi den zerbait. Baina, autogobernurako eskubideak ez bezala, eskubide polietnikoen helburua ez da autogobernua, baizik eta gizarteratzea sustatzea.

Azkenik, *ordezkaritzarako eskubide bereziak*, gutxienez, ikuspuntu bitatik ikus daitezke. Batzuetan, prozesu politikoko desabantaila edo oztopo sistematikoen erantzun gisa defendatzen dira, hau da, dagokion taldearen iritzia behar bezala ordezkatuta egotea ekiditen duten oztopoak. Eskubide horiek zapalkuntzaren edo gabezia sistematikoen erantzun bezala hartzen diren neurrian, gero eta onargarriagoa da aldi baterako neurritzat hartzea, hau da, ordezkaritza bereziko beharrian izango ez duen gizarterako prozesuak irauten duen bitartean bakarrik, finean, “ekintza politiko positibo” legez. Gizartea zapalkuntza eta gabeziak errotik kentzen saiatu beharko litzateke, eta horrela ez legoke eskubideon beharrik. Beste kasu batzuetan, ordezkaritza eskubideak autogobernuaren ondorio legez aldarrikatzen dira. Gutxiengo baten autogobernurako eskubidea oso ahulduta legoke kanpoko erakunderen batek, bere aldetik, autogobernu horren eskumenak berrikusi edo baliogabetu balitzake, hau da, gutxiengo horri galdetu gabe, ez haren onarpena bermatu gabe. Beraz, gutxiengo nazionalak bere autogobernuko eskumenak interpreta edo alda ditzakeen erakundeetan (adibidez: Auzitegi Gorena) ordezkaritza bermatuta izatea, autogobernu horren ondoriotzat har liteke. Izan ere, autogobernurako aldarrikapenak berezkotzat eta iraunkortzat hartzen direnez gero, autogobernutik emandako ordezkaritza bermeak ere, kasu honetan, berezkoak eta iraunkorrak izan beharko lirateke, zapalkuntzak oinarritutako bermeak ez bezala.

Azken batean, eskubideen alorrean, hots, “herritartasuna” terminoaren elementu nagusietakoan, *herritartasun desberdindu* baten alde gaude, hau da, taldearen arabera eskubide polietnikoak, ordezkaritza eskubideak zein autogobernu eskubideak hartzearen alde. Desberdinduaren aurrean “herritartasun berdin” batez hitz egitea, berez, kultura ugariko estatuetan nazio nagusiaren kultura babestea izago litzateke; esate baterako, nazio nagusiaren hizkuntza izango litzateke ofiziala eskoletan, auzitegietan eta botere legegileetan, eta beraien jaiegunak izango lirateke jaiegun publikoak. Hala ere, gutxiengoen eskubideek muga batzuk izan behar dituzte:

a) “Barruko mugak” ez onartzea, hau da, gutxiengo kultura batek bere kideen askatasun zibil eta politiko oinarritzakoak murrizterik ez onartzea. Talde etnikoak edo nazionalak estatuaren boterea erabiltzeko asmoa izan dezake bere taldeko kideen askatasuna murrizteko, taldeako elkartasunaren izenean, eta horrek askatasun individualaren zapalketarako arriskua dakar⁷. Horren aurrean, gizarte

⁷ Kasu batzuetan, etxetik kanpora lana aurkitu dutelako, emazteak jo dituzten senar batzuek, defentsa legal gisa, esan dute beraien jatorrizko herrialdeetan emaztea jotzea onargarria dela. Orokorrago, beldur gara,

demokratikoek ezin dute norbanakoek, beren kabuz, euren jaraunspen kultureleko zein alderdi betikotu behar duten erabakitzekeo duten eskubidearekiko konpromisoa ahaztu. Norbanakoek beren elkarteko jarduera tradizionalak zalantzan jartzeko eta berrikusteko askatasuna eta gaitasuna izan beharko lukete, baita dagoeneko horiei eusten jarraitzeak ez duela merezi erabakitzekeo bada ere.

b) Gizarte osoaren erabakien aurrean gutxiengoaren zaurkortasuna murrizten duten “kanpoko babes” batzuk defendatzea. Baina, gizarte demokratikoek ez dute talde batek beste talde batzuk zapaltzea edo esplotatzea ahalbidetzen duen eskubiderik onartu behar, hala nola, *apartheida*. *Kanpoko babesak taldeen arteko berdintasuna sustatzen duten neurrian baino ez dira zilegiak, talde jakin bateko kideek jasaten dituzten egoera kaltegarriak edo zaurkorrak zuzentzen badituzte.*

Herritartasunari buruzko hausnarketa batean oinarritzko beste ideia bat *pertenentziarena* da, hau da, tradizio komunitaristaren termino nagusia. Herritartasuna elkarte politiko bateko pertentziarekin lotzen da, bertako kide lege. Pertenentzia hori gizarte politikoa osatzen duten subjektuen arteko eskubideen eta betebeharren kointzidentzia hutsa baino gehiago da; berezko nortasuna duen komunitate batean egotearen kointzidentzia da, eta harekiko lotura eta leialtasun sentimenduak daude; lege loturekin soilik ezar ezin daitekeen talde kontzientzia eskatzen du.

Filosofia politikoko aditu batzuek diote⁸ herritarrek komunitatearekiko atxikipen defizita dutela gizarte postindustrialetan. Ez dago guztion onura bilatzeko elkarkidetza aktiboa eskatzen duten egitasmu politikoak eta ekonomikoak gauzatzeko behar den *gizarte kohesiorik*. Kohesio hori ez dago lortzerik hertsaduraz ezarritako legediaren bidez, baizik eta herritarren atxikipen eta parte-hartze askearen bidez. Arazoa larria da, orain dela hamarkada batzuk Daniel Bell ek ere antzeman zuen bezala, eta hori gure mundu garatuan nagusi den *indibidualismo hedonistaren* ondorioa da⁹. Norbanakoek, unean bertan era guztietako gurariak asetzeko interesak soilik eraginda, ez dute komunitatearekiko inolako konpromisorik sentitzen, eta, ondorioz, ez daude beren interes egoistak kontu publikoen mesedetan sakrifikatzekeo prest. Guztion arazoen aurrean hostasun antzeko bat dago, gure inguruan erro sendoak dituen sistema ekonomiko kapitalista neoliberalak eraginda, hain zuzen ere.

Egoera hori gaiztotu egin ohi da kultura bat baino gehiago biltzen dituzten gizarteetan. Sinesmen eta sinbolo ugaritasunak bizikidetza zail dezake, baina, batez ere, sarritan kulturetako bat nagusia izatea eta gainerakoak bazterturik

“kultura ugaritasuna muturrera eramanez gero” talde etniko bakoitzak kideei beraien tradizio legalak ezartzeko autoritatea izango ez ote duten, baita tradizio horiek oinarritzko giza eskubideekin edo eskubide konstituzionalekin bat ez badatoz ere (ABU-LABAN, Yasmeen eta STASIULUS, Daiva (1992): “Ethnic Pluralism under Siege: Popular and Partisan Opposition to Multiculturalism”, *Canadian Public Policy*, 18/4, 365-386. or.

⁸ CORTINA, A (1998): *Ciudadanos de mundo. Hacia una teoría de la ciudadanía*. Madril, Alianza Editorial, bigarren argitaraldia.

⁹ BELL, D (1977): *Las contradicciones culturales del capitalismo*. Madril, Alianza Editorial.

egoteak sortzen ditu injustizia sentimenduak eta zeregin kolektiboekiko interesik eza, eta, ondorioz, “lehen mailako kultura” eta “bigarren mailako kulturak” sortzen dira. Oso zaila da, ezinezkoa ez bada, norbere kultura bazterturik ikusita herritarra zarena jakitea eta horrela sinestea. Hori dela eta, ezinbestekoa da indibidua hartzen duen gizarte taldea, bere komunitate soziopolitikoak, antolatzea eta kideetako bakoitzean bere kultura errespetatzen den sentimendua piztea, kultura orokorrak ezarritako bizimoduaren desberdina izateko duen eskubidea onartzen zaiola sinestea, gizarteak beraren ardura ere hartzen duela sinetsaraztea, berarekin justiziaz jardun nahi duela. Horrela baino ez dira sortuko norbanakoetan komunitate politiko horrekiko leialtasun eta lotura sentimenduak, eta, ondorioz, horrelaxe baino ez da sortuko gizartearen alde eta gizartea hobetzeko lan egitea merezi duen sinesmena. Horrexegatik dio Cortinak:

“Gizarteak bere kideak *onartzea*, eta, ondorioz, egitasmo komunetik kideen *atxikimendua* txanpon beraren bi aldeak dira, hau da, asmo bezala gutxienez, jendetasunaren izateko arrazoia den herritartasunaren kontzeptua osatzen duten bi aldeak”¹⁰

Gaur egungo gizarteetako (gehienak kultura ugarikoak) kide guztien atxikimendurako nukleoa *justiziako gutxienekoak*¹¹ oinarritzat hartuta eraiki behar genituzke, hots, gizarte pluralista bateko kide guztiek, ideal legez behinik behin, dituzten balioekin osatutako gutxienekoak. Askatasuna, berdintasuna, elkartasuna, errespetu aktiboa... dira balio horiek. Eta hori desberdintasun politikak ezartzeari kalterik egin gabe, gutxiengoenganako edo botere gutxi duten taldeenganako injustizia egoerarik izan ez dadin. Esan dugu gutxiengoaren eskubide batzuek ez dutela desberdintasunik sortzen, baizik eta ezabatu egiten dituztela. Talde batzuek kultur merkatuan bidegabeki baztertuta ikusten dute beren burua, eta hori onartzeak eta babes politikoak kalte hori konpontzen du. Esate baterako, *gutxiengo nazionalen* kasuan, beraien gizarte kulturen bideragarritasuna nahasi egin daiteke gehiengoak hartutako erabaki ekonomikoen eta politikoen ondorioz. Gutxiengo nazional horien gizarte kulturaren biziraupenerako oinarritzko baliabideak eta politikak gutxietsiak izan daitezke. Kultur pertinentziaren garrantzia kontuan hartuta, desberdintasun handia da, eta, zuzendu ezean, injustizia larria eragiten du. *Taldearen arabera eskubide desberdinak* –hala nola, lurralde autonomia, beto eskubidea, erakunde zentraletan ordezkaritza bermatzea, lurraldetasun aldarrikapenak eta hizkuntz eskubideak– desabantaila hori zuzentzen lagun dezakete, gutxiengoaren kulturen zaurkortasuna murrizten baitute gehiengoaren erabakien aurrean.

Gizarte talde bateko kideek pertinentzia sentimendu hori izan ahal izateko funtsezko balio bat *elkartasuna* da. Ez elkartasun defentsiboa –beste batzuen

¹⁰ CORTINA, A (1998): *Ciudadanos de mundo. Hacia una teoría de la ciudadanía*. op. cit, 25, or.

¹¹ RAWLSEK *Teoría de la justicia* liburuan “gizarte baten oinarritzko egiturarako justiziaren ikuskera morala” deritzona eta Adela Cortinak “gutxiengoaren etika” edo “gutxieneko etika” deritzona (*Ética mínima*, Madril, Tecnos, 1986).

aurka elkartzea—, baizik eta inklusiboa¹²; alegia, gure ondoan bizi denaren kausa gure kausa dela ikusita eta dibertsitatea ere balioa dela sinetsita¹³. Elkartasun horren oinarria *tolerantzia* da, hots, desberdina denarekin bizitzen irakasten digun bertutea, desberdinarekin ikasten irakasten diguna, desberdina errespetatzen irakasten diguna¹⁴. Definizio horrek positiboki balioesten du dibertsitatea, ni ez naizen beste horren kultura, *gizatasunaren* oinarritzko ezaugarria konpartitzen baitut berarekin. Errespetu aktiboz begiratu behar dira, gureak ez diren elkarteak, herrien, kulturen egitasmoak ulertzeko interes positibo bezala, laguntzeko eta gauzatzeko, baldin eta moralari dagokionez ikuspuntu errespetagarria badute. Beste ezer baino lehen, *pertsonaren eskubide unibertsalak eta guztion oinarritzko askatasunak onartzea* da. Desberdintasunak markatutako mundu honetan, besteen askatasuna, pertsona lege duen duintasuna defendatzeko *jarrera konstruktiboa* da. Hemen oso egokia deritzogu Amin Maaloufek, kultura ugariko gizarte demokratikoetako bizikidetzarako oinarri lege, *elkarrekikotasun printzipioa* defendatzeko beharrianaz egiten duen hausnarketa aipatzea. Egile horrek dio kultura guztietako kideak errespetatuak direla sentitu behar dutela: nik onartzen zaitut eta kultur ekarpenekin aberastu nahi dut, zuk ere onartzen nauzula ikusten dudalako eta zuk ere, nik bezala, nire kultur esperientziaz aberastu nahi duzula ikusten dudalako. Beraz, eta ondorioz, ekitate, gizarte justizia eta eragingarritasun desioan oinarritzen den elkarrekikotasuna da. Tolerantzia zintzo ororen oinarrian egon behar da elkarrekikotasun printzipioa¹⁵.

Balio bitzuk, tolerantzia eta elkartasuna, elkarriketaren bidez sortzen eta indartzen dira. Elkarriketak lotura afektiboak sortzen ditu mintzakideen artean eta, mintzakideek bata bestea desberdina dela onar dezakete, baina gizarte ehuna ekintza kolektiboen bidez hornitzen duten balio komunak sor ditzakete. Elkarriketak herritar nortasunerako ateak irekitzen dizkigu, eta nortasun horrek kultura artekotasuna ere izan behar du, eta gizarte proiektuaren plangintzarako bateratasuna bilatzen du, gizarte hori eraikitzeko zereginean denok arduradun senti gaitezen. Ildo horretan, Habermasek *La inclusión del otro* liburuan egindako proposamena jasoko dugu. Egileak dio demokraziaren nukleoa ez direla norbanakoak, ezta komunitatea osotasun bezala ere, baizik eta interes orokorreko

¹² “Elkartasunarekin kontuz ibiltzea komeni da, izan ere, balio morala baino ez da talde elkartasuna ez bada, unibertsaltasunarekiko alergia elkartasun unibertsala izan behar. Hau da, pertsonak ez dutenean jarduten taldeko kideen interes partikularren alde soilik, baizik eta baita taldearen ekintzek eragiten dieten guztien alde ere”. CORTINA, A (1998): *Ciudadanos de mundo. Hacia una teoría de la ciudadanía*, op. cit. 244. or.

¹³ Kultura arteko dibertsitateak –baita kultura barnekoak ere–, ziurrenik, pertsonen bizimodua aberastuko du. Dibertsitate hori baliotsua da, beste kultura batzuek gizarte antolatzearen eredu alternatiboak dituztelako, gure egoerara egokitzeko modukoak. Adibidez, gero eta gehiago onartzen da mendebaldeak naturarekiko dituen jokaerak jasanezinak eta suntsitzaileak direla, eta herri indigenek munduko ordena berria zehazteko ereduak, inspirazioa eta gida eman diezazkigukete. Cfr. KYMLICKA, W.: *Ciudadanía multicultural*, op. cit. 6. kap.: “La justicia y los derechos de las minorías”.

¹⁴ UNESCOk bere berrogeita hamargarren urteurrenean (1945-1995) onartu zuen Tolerantziari buruzko Printzipioen Adierazpenean terminoari buruzko definizio hau agertzen da: “tolerantzia da gure munduko kulturak, gure adierazpideak eta gure gizatasuna adierazteko gure moduak errespetatzea, onartzea eta haien aberastasuna eta dibertsitatea estimatzea”.

¹⁵ MAALOUF, AMIN (2001): *Identidades asesinas*, Madril, Alianza Editorial, 50. orrialdea eta hurrengoak.

auzien gaineko hausnarketa prozesu baten intersubjektibotasuna, eta prozesu horren zerrenda publikoki jorratzeko irekita dago. Horrek oinarrizko eskubideen sistema demokratikoki zabaltzea ahalbidetzen du, bizitzeko modu ezberdinak onartzeari eta babesteari dagokionez¹⁶.

Gutxiengo kulturekin zerikusia duten politikei dagokienez, Habermasek bereizketa bat proposatzen du, alegia, norbanakoen eta taldeen *integrazione* "etikoaren" (kulturala) eta herritar guztiek neurri berean elkarbanatzen duten *integrazione politikoaren* arteko bereizketa. *Integrazio politiko hori konstituzioko printzipioetan oinarritutako kultura politiko*¹⁷ batean oinarrituko litzateke, nazioaren *esperientzia historikoaren arabera interpretatutako printzipioetan*, "konstituzioaren abertzaletasuna". Baina testuinguruaren arabera eratutako kultura politiko horrek komunitateen pluraltasuna errespetatu behar du maila azpi-politiko batean. Erabakigarria *integrazione maila bien arteko diferentzia gordetzea da*: osterantzean, gehiengoaren kulturak estatuaren eskumenak hartzen ditu gainerako kulturen eta bizitzeko moduen kaltetan. Etorrinen kasuan, esaterako, estatuak sozializazio politiko bat baino ezin die eskatu, konstituzioaren printzipioak zaintzeko, baina ez asimilazio kulturalik (nahiz eta ezerk ere ezin duen bermatu egitura publikoak, epe luzera, ez dienik nortasun moralean eragingo). Botereguneak sortzeari eta onartzeari dagokionez, bizikidetzat oinarritutako adostasun baten inguruan sortzea da kontua: prozesu demokratikoetan, komunikazio askean eta boterearen kontrol konstituzionalaren oinarritutako politika. Adostasun hori, halaber, abertzaletasun konstituzionalaren kultura politikoan ere errotuta egon behar da¹⁸.

Azkenik, herritartasunaren kontzeptua aztertzeko beste kategoria nagusi bat, tradizio errepublikanoan batez ere, *parte-hartzea* da. Herritartasuna auzi publikoei dagokienez aktiboki erabiltzen den baldintza bat da; estatus politiko bat da. Esan dugu lehen ere, historian zehar nagusitu den herritartasun eredua teoria liberalekoa izan dela, hau da, autonomia pribatua (beste batzuekiko independentzia eta babesa) ahalbidetu nahi duena, eta ez autogobernua, autonomia publikoa. Gure gizarteetan orokortu den herritartasun pasiboaren ikuskera horren ondorioz, herritarrak bere burua bezerotzat ikusten du, hau da, estatuak zerbitzu jakin batzuk ematen dizkio eta berak, ordainetan, bere botoarekin, gizarte politikak garatzen dituen boterea babesten eta legitimatzen du¹⁹. Hala ere, azkeneko hamarkadetan, batez ere guztion bizimodua hobetzeko ordezkari politikoek egin dituzten jardueren aurreko desengainuaren eraginez, gero eta gehiago defendatzen da parte-hartzearen garrantzia herritartasunaren elementu nagusi legez. Horrez gain, Habermasek ondo adierazi duen legez,

¹⁶ HABERMAS, J (1999): *La inclusión del otro*, Bartzelona, Paidós.

¹⁷ *Kultura politiko* legez uler dezakegu "herritarrek auzi publikoak gobernatzeko hartzen dituzten praktikak, prozedurak, arauak eta erakundeak; gizartearen bizitza publikoa eratzen dutenak, azken batean." ROSALES, J.M.(1993): "Democracia y posmodernidad", RUBIO CARRACEDO, J. (ed.): *El giro posmoderno*, Philosophica Malacitana, 1. gehigarria, 157. or.

¹⁸ PEÑA, J.(2000): *La ciudadanía hoy, problemas y propuestas*, ed. Valladolideko Unibertsitatearen Argitarapeneterako Idazkaritza, Valladolid, 73-74. or.

¹⁹ *Ibidem*, 35. or.

herritarraren estatusak ez du eragingarritasunik izango eskubideak aldarrikatzeko eta horien onarpen praktikoa lortzeko eta erabiltzeko posibilitaterik ez badauka²⁰.

Ondasun publikoen administratzaileek nola, noiz eta zergatik hartzen dituzten erabakiak, jarduten duten eta erabiltzen dituzten baliabide kolektiboak – eta batzuetan “eskertu” egin behar izaten da hori gardentasunez eta argi egiten dutelako– jakiteko informaziorik osoena eta zabalena izateko herritarrek duten eskubidea baino askoz gehiago da parte-hartzea. Herritarrek jarduera eta erabilera horien gainean, maila guztietan, erabakiak hartzeko izan behar duten gaitasunari eragiten dio²¹. Proposamen horrek azpimarratu nahi ditudan funtsezko bi ataletara garamatza: *herritarraren hitza entzunaraziko duten antolakuntza egiturak, xedapenak eta arauak sortzeko premia, eta demokratiko izateko bidea emango diguten balioak eta eskumenak hartzeko* exijentzia. Ez bata ez bestea isolatuta. Lehenengora mugatzen bagara soilik, egiturarik onenak eta legeria aurreratuenak ez digute, berez, herritar guztien benetako parte-hartzerik bermatuko. Gizarte garaikideen ezaugarria ez da, prezeski, herritarrek antolatzeko eta militatzeko duten garra, hau da, inplikazio politikoa ez da gizarteon ezaugarria. Herritarrek demokrazian bizitzeko behar dituzten balioak eta eskumenak izatea (erantzukizuna, autonomia, gaitasun kritikoa, parte-hartzea, elkartasuna...) ere ez da nahikoa, horretarako aukera legalak, ekonomikoak eta kulturalak izatea ere beharrezkoa baita.

Hementxe amaituko dugu herritartasuna terminoak, gure ustez, dituen osagai nagusietako hiruren gaineko hausnarketa. Hausnarketa honen helburua herritartasunaren kontzeptua XXI. mende honen berezko ezaugarrietara egokitzen saiatzea da, hau da, mendealdeko gizarteetako kultura ugaritasunera egokitzea. Azken batean, krisian dagoena, orain balio ez duena, herritarra eskubide hartzaile huts ikusten duen herritartasuna da, herritarra elkarteko bizimoduko eragilea izan behar da, parte-hartzea demokraziaren oinarritzko balioetako bat baita. Pluraltasunaren aberastasuna eta libre egiten gaituen dibertsitatea aintzat hartu beharrean homogeneotasun kulturala bilatzen duen herritartasuna ere baztertu egin behar da.

²⁰ Habermasek hauxe dio: “herritartasun estatusak, batez ere, norbanakoak bere kabuz eta bere egoera, posizioa edo izaera juridiko materiala *aldatzeko* erabil ditzakeen eskubide demokratikoak ezartzen ditu”, HABERMAS, J. (1998): *Facticidad y validez*, Madril, Trotta, 626. or. Herritartasunaren balioa eskubide legez bizimodu duina lortzeko gaitasunean dago.

²¹ ESCALERA, J.(2003): “¿Qué participación?”, *Diario de Sevilla*, ekainaren 16a, 12. or.